



EHULKU zerbitzua



EHULKU zerbitzua zer den.



*EHUn euskararen erabilera
zuzen eta egokia
bultzatzeko zerbitzua duzu
EHULKU.*



*EHUko irakasle eta langileoi
eskaintzen dizuegu
Euskara Zerbitzutik.*



*Euskaraz ematen dituzuen
eskoletan eta zerbitzuetan
sorturiko hizkuntza-arazoei
irtenbide egokia
bilatzen saiatzen gara.*



HONA ADIBIDE BATZUK



Egin diguten GALDERA:

Nola du laburdura "bira minutuko" adierazpenak? Euskalterm-en orrian b/min agertzen da. Baina ingelesez eta gaztelaniaz r.p.m. edo RPM onartzen dira. Ez dakigu zein erabili.

Gure ERANTZUNA:

Estandarizazio-erakundeen arabera, halako sinboloak (rpm, rps...) baztertzekoak dira. Haien ordeztuz, r/min eta r/s erabiltzea gomendatzen dute. Gero, bai, irakurri, "bira segundoko" edo "bira minutuko".



Beste GALDERA bat:

*Nola adieraziko genuke "carta de navegación",
itsasontziei dagokienez?*

Gure ERANTZUNA:

*"Itsasketa-karta" proposatzen dizugu. Horrek ez
du esan nahi "nabigazio" gaitzesten dugunik, baina
zabalagoa da, hegazkinei ere badagokie eta.
"Mapa" ere ez dugu gaitzesten, baina "mapa
geografiko" zentzuan (errepideena, esate
baterako).*





AUKERA DUZU, BERAZ, ZURE ZALANTZEI BURUZKO GALDERAK EGITEKO.





Ahalik eta lasterren bidaliko dizugu erantzuna.





Helbide honetan aurkituko gaituzu:





Hauxe duzu galderak egiteko bidea:

1. Egizu klik EHULKU izenaren gainean, barran.

Edo zoaz honako helbide honetara: <http://www.ehu.es/ehulku>

2. Saka ezazu SARTU.

3. Gero, GALDERA-ERANTZUNAK.

4. Eta, azkenik, **Galdera bidali**.

5. Inprimaki moduko orri bat agertuko zaizu pantailan.

Hura bete eta bidaliezaguzu.

Ez ahaztu zure helbide elektronikoa ipintzea.

Eta albaít arinen erantzuten saiatuko gara.

Har ezazu Euskara Zerbitzuaren agurra

